


# BERRIGARA

40. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, azaroak 8




**Txomin Amasorrain  
euskalzalea gure artean**



**Udalak eta  
Euskara  
Jardunaldiak**



**Arientza  
Idi probatan  
buru-belarri**




**Bideluze  
Euskadiko  
Txapeldun**



**Besaulki eta tresiloen  
konponketa eta tapizaketa  
Etxebarruen dekorazioa**

**JOSE  
LUIS  
eta  
MIKEL**

Urteaga 6, behea Tfnoak: 76 50 37 / 79 35 17



Barrenkale, 3 • BERGARA • - telef.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta  
karta bereziak ditugu  
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



**18 urtean  
zure zerbitzuan**

**Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66**



## **GALDE DEBALDE**

**Argiñe Zurutuza**

**Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun  
zuzena hau zen: San Miguel santuaren izena eta  
Noeren txalupa gainean agertzen da.**

**Argiñe Zurutuzak idabazi du ARGAZKIKO  
SARIA.**

**ZORIONAK irabazleei!!**

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman  
aste honetako galderarai!**

## **SANTOS**

### **IRRATI - TB**

**Elektragailuak  
Sukaldeko Altzariak  
Argiztapena  
Antena instalazioak  
Elektragailuen konponketa**

**Mahasterreka 2, Tfnoa: 76 26 10 BERGARA**



## **JANTZIDENDA**

**Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57**

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte  
 Errotalde Jauregia, 20.570  
 Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 760397

**Laguntzailea:** Bergarako  
 Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezibar

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal, Iñaki Arietaleaniz eta Edurne Arenaza  
 Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Josune Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa Bikuña

**Argazki laborategia:**

A. Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Loge gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



**Kepa Junkera trikitilaria** bere taldearekin izango da larunbatean Frontoian. Azaro-abendu Musikalak era guztietako musikari tartea egitea nahi izan du eta antolatzaileek euskal folk eta trikiti alorreko ordezkari nagusienetako bat gure artean izatea ere lortu dute. Keparekin batera, taldea osatzen duten jazz eta rock euskal musikari onenetarikoek azken urteotan Euskal Herri osoan zehar erakutsi duten maila bikaina eskeiniko digute. Larunbatean, 10 t'erdietan, Herriko Pelotalekuan.

**16 LARUNBATA**

- Saskibaloia  
 -Bergara-Ondartza (kade emakumezkoak, lehen maila) 17.30etan .  
 - Bergara-Baskotour (kade emakumezkoak, 2. maila) 16.00etan.
- Bergara-Txirrita (jubenil neskak) 17.30etan.
- Bergara-Askatuak (jubenil mutilak) 16.00etan.
- Eskubaloia:  
 - Bergara-Elgoibar (kade emakumezkoak) 11.00etan.
- Bergara-Ordizia (jubenil mutilak) 12.15etan.

• Pelota partiduak:

- Frontoian 16.30etan: Zabalabala-Urra/Telletxea-Errasti, Unanue-Zezeaga/Galarza III-Salaberria, eta Iribarren-Bueneitea/Gabilondo-Alberdi III.
- Kontzertua:  
 - The Damned eta Parabellum Txibiston 23.00etan.

**17 IGANDEA**

- Futbola:  
 - Bergara - Vasconia 15.30etan Agorrosinen.

**FARMAZIAK**



- 16 Guallar/Gauetz: Azkoaga (Arrasaten)
- 17 Guallar/Español
- 18 Estella/Corcuera
- 19 Mozos/Irizar
- 20 Camacho/Amezua
- 21 Puy/Ruiz
- 22 Guallar/Azkoaga

**ZINEA**



*Llamaradas*

- OSTIRALA: 22,30.
- LARUNBATA: 17,00; 19,30 eta 22,30 etan.
- IGANDEA: 17,00; 19,30 eta 22,15etan.
- ASTELEHENA: 19,30.

*Solos con nuestro tfo*

- IGANDEA: 11,30etan.

*Sandino*

- OSTEGUNA: 19,30etan (Zine-Kluba)

**OGIA**



Konde Panaderokua



**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

**Mujika Jantzidenda**

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



**LIZAR Altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

# Beheko Taberna

Menestra eta konejoo dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# ANDIZV

ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA

Azulejo erakusketa • Onduline  
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41

Faxa: 76 00 58 BERGARA

# Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

## Bergarako L.H. eskolan euskaraz, tururu!

Bergaran kilometroak ospatu zela eta, beste eskola, erakunde eta abarren moduan Lanbide Heziketa Eskolak (Elementalak) antolaketan parte hartu zuen. Hau dela eta nere buruari hainbat galdera egin dizkiot...

Ondo deritzot horrelako mobida batetarako gure euskaltasuna adieraztea baina aldi berean, nahiko hipokrita iruditzen zait, beste arlo batzuetan gure eskolak euskararekiko duen jarrera ezagutu ondoren.

Lehenengo matrikulaketa erdera hutsean egin beharra, hau ez dakit noren errua izango den, baina adibidez bekak eskatzeko papelak bilingueak dira, eta Eusko Jaurlaritzak bihurtzen ditu, orduan eskolaren errua izan leikela ematen du.

Ni mekaniko euskera hutsean egiteko matrikulatu nintzen, eta hemen asignatura askotan testuak erderaz ditugu, hau da nahi ala nahi ez, azkenean asignatura asko erdi erderaz (edo erdera hutsean) ematen dira.

Egoera hau tristea dela pentsatzen dut eta are gehiago Eusko Jaurlaritzak irakaskuntzako eremu guztiak euskaldundu dituela aipatzen denean.



Eskola euskalduntzea, noren lana da?

Eusko Jaurlaritzarena, irakasleena (testu traduzituak bilatzen edo traduzitzen), ikasleena...

Errua norena den ez dakit, baina argitzeko ordua dela uste dut.

## Ikasle bat

## Penagarria

Berrigarak eskeintzen didan espazio honetan Unzeta Jauregiko ballaren egoera penagarria salatu nahi nuke. Asteak pasa eta bertako inkilinoek ez dute ezer egiten berau konpontzeko, ezta Udaletxeak ere.

Nik ez dakit noren kompetentzia den hori baina uste dut ordua dela zerbait egiteko asunto honetan. Istipuren bat gertatzeko zai? Ala zuhaitzetan jarri dituzten kamara guzti horietatik ez al dira ohartzen egin gabeko etxeko-lanak ere badituztela?

Ainhoa L.

## Tiira ba!



## Josu Okina

### □ 52ko Kintoak

Datorren larunbatean, hilak 23, 1952. urteko kintoek beren jaio-tzaren 60. urteurrena ospatuko dute. Zazpi t'erdietan meza izango dute Goenkaleko Monjazaharretan eta ondoren Antxoni Jatetxean afaria izango da. Txartelak Irrintzi tabernan eros daitezke hilaren 20a baino lehen.

### □ Orfeoia

Bergarako Orfeoiak astebeteko aurrerapenarekin ospatuko dute aurten Santa Cecilia, musikarien patroiaeren eguna. Igandean, hilak 17, arratsaldeko ordu batean, Lizarrako Puy Elizan meza kantatu eta ondoren bazkaria edukiko dute Lizarrako Kanpineko jatetxean.



## Eskeintza berria

Bilbao-Behobia autopista eramaten duen Europistas enpresak eskaintza bat egin dio Eusko Jaurlaritzari, 2.003 urtean amaitzen zaion esplotazio luzatzearen truke Urbina eta Maltzaga artean peajeko autopista egiteko. Europistas prest azaldu da Nazional 1aren bikoizketa-ekin bakarrik Maltzaga eta Urbina (Araba Iparraldean) artean beha-

rrezkoa litzatekeen autopista bere kontura egiteko. Urte amaierarako Gobernuaren erantzuna izatea espero da. Eusko Jaurlaritzaren estudio batek gomendatzen duen autobia eraikiko balitz, aurrekontua 40.000 milioikoa litzateke eta autopistak berriz obrak 12.000 milioitan garestituko lituzke.

### □ Jubilatua

Ostegunean, hilak 21, jubilatuek festatxo bat edukiko dute arratsaldeko 5etatik aurrera. Merienda, hainbat zozketa eta, Musikal Araba taldeak alaiturik, vals, tango eta paso-doble dantza lehiaketa izango dute. Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek bezperan izango dute izena emateko azken eguna.

### □ Erakusketa

Bingen de Pedro artista bergararrak azaroaren 15etik 25era bitarterako bere koadroen erakusketa prestatu du Kultur Etxean. Margolari honen lanak astegunetan arratsaldeko 6etatik 9etara eta, astebukaeretan, eguargatik 12etatik ordubatera eta, arratsaldez, 6etatik 9etara ikusi ahal izango dituzue.

## Komertzianteen bilera

Bergarako komertzianten talde batek joan den asteartean bere desadostasuna azaldu zuen, prentsaurrean, Diputazioak 1992 urtean martxan jarriko duen *Iharduera Ekonomikoen Zergarekin*. Orainarteko lizentzia fiskala eta publizitate zergaren ordez onartutako zerga berri honek, orokorrean, igoera nabarmena suposatu du lehen ordaintzen zutenarekin konparatuz. Alegazioak aurkezteko epea azaroaren 29an amaitzen denez, zerga berria ordaindu behar duten guztiei dei egiten zaie asteartean, hilak 19, arratsaldeko zortzi t'erdietan UNEDen egingo den bilerara.



**BRIKOLAIA  
AUTOMOZIOA**

**Turismoak,  
kamioiak, etab.**

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

**K**abia

**Altzariak**

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

□ **J.M. Sañudo**

*Jose Maria Sañudo* asteartean hil zen Donostian 77 urte zituela. Orain gutxi Bergarako herriari hainbat dohaintza egin zizkion bergarar honen hileta elizkizunak asteazkenean egin ziren San Pedro Elizan. Goian Bego.

□ **Argazkiak**

*Pol-Pol Argazki Taldekoek Bizi Alternatiboaren* aurtengo edizioan ateratako argazkiak azaroaren 18tik 24era bitartean izango dituzue ikusgai Pol-Poleko Aretoan arratsaldeko 7etatik 9etara.

□ **Kartetan**

Larunbatean, hilak 16, *Jubilatuen Egoitzan* gaueko bederatzi t'erdietan izango den afariaren ondoren, emango zaio hasiera aurtengo elkarten arteko *karta txapelketari*.



**Ikasleen eguna**

Gaur ostirala, *Ikasle Abertzaleak* antolaturik, Bergarako *Lanbide Heziketa* eta *Institutuko* ikasleek *Munduko Ikasleen Eguna* ospatu dute. Igandean II. Mundu Gerratean naziek Txekoslovakian 50.000 ikasle hil zituztenetik 52 urte betetzen direnez, ikastetxe ertainetako ikasleek gaurko egunera pasa nahi izan dute egun hartan hildako ikasleen oroimenezko eguna. Iaz bezala, bi ikastetxeek batera ospatu nahi izan dute gaurko eguna eta, hori

dela ta, gaur jokatu beharreko finaletarako kanporaketa ezberdinak izan dira aste osoan zehar ikastetxe bietako finalistak erabakitzeke. Gaurkoan, 300 ikasle inguru bildu direlarik, goizetik ekintza ugari izan da Institutoan: futbito eta saskibalo finalak, tute eta mus txapelketak, kaskara joku, zaku karrerak, sokatira eta herri bazkaria. Jaiari amaiera emateko, antolatzailerik musika jaialdia egitea espero zuten.

□ **Lazkano**

Bartzelonan *Iberico 2000* izeneko Batzordean bildutako Estatu-ko kritikari adituenetako batzuek, *Jesus Mari Lazkano* pintore bergararra "artista gazteen artean Estatuan proiektio haundiena duena" izendatu berri dute.

□ **Kilometroak**

Igandean *Kilometroakeko* bazkarian bildutako 200 bat lagunek amaiera eman zieten festa horren inguruan antolatutako ekintzei. *Kilometroakeko* bideoa nahi izanez gero, *Aranzadi Ikastolan* duzue salgai 2000 pezetatan.

□ **Ihardunaldiak**

*Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* eta *Jubilatuen Egoitzak* antolaturik, azaroaren 18, 19 eta 20an *Emakumea, osasuna eta sexualitatea 3. Adinean* ihardunaldiak izango dira Jubilatuetan.

**Etxenagusia**

**Berezitasunak:**  
kremazko kafea eta paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08

**ederTU**

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK  
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

**ANTIA**

HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**MINER**

**Ardo onak,**

**ardoa jakina**

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

# Udalak eta Euskara jardunaldiak

## Bergaran izan dira aste honetan

*Astelehen eta asteazkenean, Euskal Autonomi Elkarteko hainbat erakunde ofizialek antolatu duten "Udalak eta Euskararen normalkuntza" izenburuko hitzaldi-sorta izan da Bergaran. Deba Arroko alkate eta zinegotzientzat antolatutako jardunaldiak oso positibotzat jo dute parte hartzaileek.*

Joan zen astelehen eta asteazkenean UNEDeko aretoan "Udalak eta Euskararen normalkuntza" gaiari buruzko hitzaldi sorta bat eskaini da.

Lehenengo egunean Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiak orain arte hizkuntzaren normalkuntzan eman diren urratsen berri eman zuen eta gai honi buruz dagoen legeria azaldu zuen.

Jarraian, Andoni Sagarra, Euskararen Aholku Batzordeko kideak, hizkuntza politika finkatzeko kontutan hartu beharreko hainbat puntu

agertu zituen.

### Oñatin Udala Euskara hutsean

Bigarren egunean Oñati, Antzuola, Eibar eta Bergarako Udalekoek, bakoitzak arlo batean izan dituzten esperientziak eta aurrera eraman dituzten planen berri eman zuten.

Bergarako Udalaren aldetik, Koldo Pereira Euskara eta Hezkuntza Batzordeko buruak herri mailan euskara normaltzeko udalak egindako lanaren berri eman zuen. Aipatutako esperientzien aipagarriena eta jendea gehien harritu



zuen Oñatiko Udalekoa izan zen, udalak ia % 100 euskaraz funtzionatzen zuela adierazi bait zuen bertako alkateak. Antzuolan ere, ia guztiz euskaraz egiten omen dute, eman zituzten datuen arabera.

Azkenik, Marian Lizarralde, Euskararen Aholku Batzordeko kide eta Oñatiko Euskara Zerbitzuruak udaleko

hezkuntza politika definitzerakoan lehenetsunak markatzeko erizpideei buruz hitzegin zuen.

Guztira 30-35 bat lagunek hartu dute parte, udal-agintari eta tekniko artean eta jendeak oso interesgarritzat jo zituen, aurrera ere koordinazioari jarraipena eman eta elkarlana sendotu beharra azaldu zutelarik.

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**KONDE**  
**PANADEROKUA**



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

**LITXAR**  
**Kruasantegia**

- Gosariak
- Askariak
- Hanburgesak / Sanwichak  
/ Plater konbinatuak / Pizzak

Fraiskozuri enparantza 4 Tfnoa: 76 55 45 BERGARA

# Santo Tomas

## Zubiak eta ermitak

*Oraingo honetan laureun urte direla oso ezaguna zen Zubiarte auzoan zegoen Santo Tomas ermitari buruzko azalpenak ematen dizkigu Imanol Sorondok.*



**H**amaseigarren gizaldian Zubiarteko auzoa oso ezaguna zen; Antxi-turritik hasi eta Barruti ingururaño-koa. Bi zubiren erdian zegoen eta bide batzuek bertako zabaldian gurutzeratzen ziren. Bi zubi horien ondoan bi ermita zeuden, San Faustorena eta gure Santo Tomasena, hau gaurko Zubikoatik Barruti alderaño-ko zelaian. Etxe bat ba zan horretan Zubiarte izenekoa, eta abizena ere bai.

Bergarak zubi asko ditu, eta zubi horien ondoan ermitak daude edo zeuden: San Prudentzio, San Antonio, San Lorenzo agian, San Adrian (Ondartza), Santo Tomas, San Fausto, Osintxuko eliza, eta Santamainakoa bera ere bai, nahiz eta Oxirondokoa

Zubietako karrikatik Etxeaundi-Usondora dihoana izan. Santamainakoa Elizaren ondoan dagoena XVI garren gizaldian egin zen, bañan "Katabixa" (Katabia) izenak esaten duenez, ibaiaren pasalekua izanik zaharragoa da. Ez dira kuriositate batzuek, besterik gabe; badaukate zer ikusirik bideak, zubiak eta ermitak. Garai hartako debozioetan santuen babesa bilatu nahian edo, erlijiozko leku bereziak dira.

Santo Tomas ermitako hormak hondatzen joan ziran eta, gertatu ohi dena, ijituak bere aterpera bildu ziran. Horma berriren bat jaso zuten, eta talde horiek bial zituzten, bañan geroztik ez zuen berri gehiagorik eman.

*Imanol Sorondo*



*Barruti baserriaren ondoko zubiaren eta Zubikoako ondokoaren inguruan bi ermita zeuden, orain dela laureun urte. Zubikoa baserriaren ondoan Santo Tomas izeneko ermita zegoen. Argazkietan: goikoan, Zubikoa baserria eta behean, honen eta Barruti artean dagoen zelaia.*

**Kiroldegiko  
Taberna**



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

D. IRALA 5  
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

*Pepelu*  
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07



# Jose Mari Marzana, "Arientza": "Idi probak, espektakulorik politena"

*Hemendik Gabonak bitartean, herri kirolen munduan, idi proben txanda izango da, denboraldiko sari garrantzitsuenetari-koak jokatuco baitira tarte horretan.. Aspaldian Angiozarren bizi eta aurten jadanik hainbat manta irabazi dituen Jose Mari Marzana, Arientza, 52 urteko probalari elorriotarrak ere zeresanik izango du proba horietan.*



*Zer nolako entrena-  
mentuak egiten dituzte?*

*Ya egunero idi bikote-  
ren batekin ibiltzen naiz  
eta 1.900 Kg-ko harriekin  
ibili eragin eta jana ere  
zertxobait kontrolatzen  
dier. Honetarako afizi-  
nua eduki behar dela,  
gustau, bestela ez dago  
zereginik, honetan sar-  
tzen denak ez du nego-  
zioa bilatzen. Jornala  
txikia eta lan asko.*

*Bistan da asko dis-  
frutatzen duzula.*

*Ondo dabiltzanean  
nik neuk espektakulorik  
onenarekin baino gusto-  
rago egoten naiz idiak i-  
kusten. Txarto badabil-  
tza berriz, ezin forman  
ipini eta buztarri berria  
jarri behar ta... hori bai  
gogorra! Badakizu, ge-  
hienak gainera "del mon-  
ton" dira...*

*Herri kirolak eta idi  
demak konkretuan mo-  
mentu onean al dira?*

*Gaurko egoera onena  
dela uste dut, jendea idi-  
ak onak direnean asko  
joaten da, kabidu ezinda  
batzutan. Eta jende gaz-  
tea ere hasi da bastante  
joaten. Badakizu, dirua  
tartean, jendeari atsegin  
zaio beste inoren boltsi-  
kotik dirua irabaztea. Jo-  
kua ez balitz, seguruenik  
ez litzateke hainbeste  
joango.*

**M**omentu goxoenak  
oraingo hauek?

Aspaldian suertea  
eduki dut, terriblea,  
aurten ere zazpi bat  
manta lortu ditut...  
baina 17 urterekin nere  
kontura hasi nuenean  
ere ridikulo batzuk ere  
egin nituen. Aurrean  
ibili ezkeru primeran  
baina idiak kaskatzen  
zaizkizunean orduan  
datoz momentu latzak,  
berriak onak irten arte  
igual hiru urte pasa-  
tzen baitira. Hiru urte

daramatzat hauekin, eta  
hiru urte aguantatzea  
puntan oso zaila da, mi-  
lagrua esango nuke.

*Idiek asko sufritzen  
dutela esaten da...*

Ke ba! Idia boronda-  
tetsua bada, sufridu ba-  
pez. Orain, nagia bada,  
egurra ematen zaio.  
Hauek oso akulukada  
gutxi hartzen dute. Su-  
fridu... ba esfortzua egin  
behar! Ez dut uste tratu  
txarrik ematen diegunik,  
berotu bai deportia hori  
da ta, gizonak be ito izan

dira inoiz bizikletan edo  
dana dela.

*Nola igarri onak  
direla?*

Klasean igartzen da,  
beti ez, baina sarri asko-  
tan bai. Pertsonak bezala  
atleta antza izan behar  
du. Klasea, fina... segitu-  
an igartzen da zeinek e-  
man dezakeen errendi-  
mentu ona plazan. Hori  
bai, gero linean manten-  
du behar, 1.100 kilotik  
gorako kilo bakoitzeko  
harrian kilo ta erdi gehi-  
tzen zaie eta.

**SUBIJAI**

Gazteentzako moda

Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

**ARDATZA**

*Brikolaketa*

**ateak  
eta**

**horma-armairuak**

Mahasterreka 4, Tfnoa: 76 18 93

BERGARA

# Txomin Amasorrain euskalzale fina gure artean

*Txomin Amasorrain euskalzale sutsua zena, urteak dira joan zitzaigula. Hala ere ezagutu zutenen oroipenetan dirau, gure hizkuntzarekiko harek izan zuen jokabide zintzoak.*

*Garai batean idatzitako kontuak aste honetatik aurrera Berrigarán leitzeko aukera izango duzuela eta, Txominekin harreman estua izan zutenen eritzi batzuk jaso ditugu.*

**Euxebi Usabiaga:**

## "Ipuinak kontatzen oso mondrauetarra zen".

Euxebi Usabiaga bere emazteak, inork baino hobeto ezagutu zuen Txomin. Urte mordo bat elkarrekin, Euxebik Batzokiko antzerki taldean Errepublikara garaian ezagutu zuen Txomin. Berekin ezkondu eta orain dela 18 urte, joan zitzaigun arte elkarrekin bizi izan ziren: "Txomin arrasatearra jaiotzez, mutil-koxkor etorri zen familiarekin Bergarara bizitzera, bere aita Altos Hornoseko gerentea bait zen. Batzokiko antzerki taldean ezagutu genuen elkar, eta 1939ko irailean ezkondu ginen".

Zortzi seme-alaba izan zituzten, sei mutil eta bi neska. Bi mutil txikitant hil zitzaizkien eta beste neska bat gaztetan istripu batetan. Gaur egun bost mutil bizi dira.

Altos Hornosen personal-buru lan egin ondoren, ezorduetan idazten eta testuak euskaratzen jarduten zuen: "Aditzak ikasteko joku bat ere asmatu zuen". Euskalzale amorratua Txomin, "bere familia, berriz, ez zen hainbestearinoko euskalzalea, Karlista aldekoak gehiago ziren, baina Txomin aparta zen euskalzalea. Sarri pentsatu izan dut, orain biziko balitz zer izango ote zen".

Gizon azkarra, "matematikan eta horrelakoetan aparta zen"; beti inguruko koei laguntzeko prest, "inori laguntzeko borondate hutsa zeukan. Harek ez zeukan ezeren anbizioarik, kotxerik eta horrelakorik erosteko. Motorra zeukan eta berarekin ibiltzen zen handik-hona".

Bilbon Industria Peri-



taje ikasketak egin zituen gaztetan eta Eskola Elementalean matematikak irakasten ere ibili zen, Josu Oregirekin harreman sendoak izan zituelarik. Lagun minak, Josuk zein Txominek asko ikasi zuten elkarrekin.


Euxebik ondo gogoratzen ditu Txominen ipuinak, inguruko artean barre algarra ederrak sortarazten zituzten kontuak: "Ipuinak, asko kontatzen zituen, horretan oso mondrauetarra zen,

hango esaerak asko kontatzen zituen. Mondrauerako ilusiñoa haundia zeukan arren, Bergaran oso gustora bizi zen. Egia esan ez zuen gustoko kanpora irtezea; hemen inguruan, pasioan, primeran pasatzen zuen, mendira ere sarri askotan irtetzen zen, baina argi esaten zuen, bera soka batekin lotu eta ez dakit zenbat metrotan egongo litzatekeela. Auzoan lagunartean inon baino hobeto bizi zen".

### GESTORIA EGUREN

M. Pilar Eguren Diez  
Kolejiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,  
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45



## Laskurain

saneamenduak

Barrenkale 35,

Tfnoa: 76 24 89

BERGARA

## Juste Amenabar: "Gizon umila eta azkarra zen Txomin"

Juste Amenabarrek harreman estuak izan zituen Txomin Amasorrai-nekin. Biak, bai Juste bai Txomin, antzerkigintzan urteak emanak dira: "gerra aurreko Batzokiko antzerki taldean elkarrekin ibili ginen. Txominek, zuzendari lanak egiten zituen, baina gerra etorri eta sakabanatu egin ginen. Ondoren, hirurogeigarren hamarkadan, berriz ere antzerki taldea osatzea proposatu nion Txomini, eta horrela ekin genion ostera 1966. urtean "Ernai" ize-neko taldearekin. Bospasei urte iraun genuen. Inguruko herrietatik zehar ibiltzen ginen eta behin, Donostian, "Unidad" egunkariak sari bat eman zigun. Bergaran antzezten genuenean, berriz, asko etortzen ziren ikustera, hemen antzerkiak beti eduki izan du sekulako azeptaziñoa. Jasotzen genuen dirua Ikastola sortzeko erabili genuen".

Joan zitzaigula urteak badira ere, Txomin ezagutu zutenek ez dute ahaztu, bere izaera, bere eskuzabaltasuna..., Txomini buruzko oroitzapenek, ezagutu zutenen bihotzetan diraute: "Txomin gizon umila eta era berean azkarra zen. Nere us-



tez ez zuen erakusten berak zekien guztia, umilegia zelako. Oso jakintsua, matematikak eta zientzia arloko gaietaz asko jakiteaz gain, hizkuntzak ere ondo menderatzen zituen: gaztelertik eta frantsesetik testu ugari itzuli zituen euskarara, euskaltzale amorratu zen".

Gizon serioa, baina beti lagunei eskua zabalatzeko prest: "ezagutzen zutenek asko maite zuten, serioa bazen ere, grazia haundia, txispa haundia zeukan ipuinak kontatzeko. Gazteek errespeto haundia zioten".

Juste Amenabarrek, frankismoaren garai gogor haietan ezagutu zuten beste askok bezala, hitz onak besterik ez dizkigu esan, Txomin Amosarrain zenari buruz.



JOSU OREGI

## Txomin nire gogoan

Txomineri buruzko lerro batzuk eskatzen dizkidate, eta bai nik eske hori atseginez onartu ere, adiskide eta lankide izan nuenaren oroitzapena berrizteko aukera ematen didanez gero.

Lanbide-eskolan, bera bertako irakasle zela eta ni berriz hutsune bat betetzera joanda elkarrekin egokitu ginenean izan nuen Txominekin lan egiteko beta; orduko (berrogeita hamargarren urte-hamarrekoko) egoera latzak euskerarentzat zituen ondorio galgarriez behin eta berriz ihardun ondoren, euskerazko ikasaldi batzuk antolatzea on litzatelkeela eta hainbat urte iraun zuten ikastaroak emateari ekin gintzaizkion.

Hoietañ berarengandik zenbait ikasi nuen labor esatea ez da erraza. Ikasaldietan nahiz elkarrekingo solas-

alditan oparo zerizkion hitz eta esate-modu ugari aberatsek gure hizkuntzaren muinaz jabetzeko biderik egokiena ematen zuten. Eta beti bene-benetako apaltasunez, irakasle jakintsu ez baizik eta ikasle gogotsu bai-litzan.

Bestelako itxura bazuen ere oso gizon umoretsua zen. Hainbat aldizkaritan argitaratu zituen izkirimiriak gorra-behera, niri neuri pasarte irrigarriren bat kontatzean lehergingo bailuen ateratzen zitzaien parre-algara dator kit gehienbat burura.

Bainan, oroz gain, bere bihotzondoak egiten zuen maitagarri; inoiz esan izan dudanez Txomin herri bat egiten duten gizon hoietako bat izan zen, ezagutu genuenentzat euskalzaletasun eta gizatasun-eredu.

**IZPI**

**PUC - VEKA -  
LEIHOAK - ATEAK**

Elorregi Auzoa  
BERGARA


Tfnoa: 76 58 87

**MAKAILO**

**Makillau ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargaral 15

## "Udalak eta Euskara", ihardunaldiak ze moduz?



**Aitor Aginagalde**  
30 urte, HBko zinegotzia

Behinik behin Udaletxeak horren gainean biltzea guztiz positiboa ikusten dut.



**Nekane Iglesias**  
26 urte, PSOE (Arrasate)

Positibotzat jotzen ditut, naiz eta tratatutako gai batzuetan ados egon ez. Dena den, elkartrukatze hori ona da beti.



**Koldo Pereira**  
33 urte, EAJko zinegotzia

Oraindik euskararen arloan eman beharreko pausoak eta beste herrietako ereduak ezagutzeko interesgarriak izan dira.



**Jokin Azkue**  
30 urte, Jaurlaritzakoa


Nere ustez informazioaren elkartrukatze oso egokia izan da eta denentzako aprobeztagarria izango da.



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
**ONATI**

**FS**   
oto sistema

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkia momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

# MABER GIMNASIA - ETXEA

Kulturismoa  
Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa  
Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak  
Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak

## URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!!

Zuzendaritza: **MARTIN BERROYA EGAÑA**  
( Euskadiko Kulturismo Txapelduna )

Koldo Elizalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA



## VIPak babestu

Urteak daramagu demokrazia eta instituzioak sendotzen eta finkatzen eta aldi berean krisi ekonomikoa, inork ez daki nola izaten ote den, indarberritu zaigu.

Azken hamarkadan alderdi politikoez Estatuko ekonomia espekulatiboa eta disdiratsua bultzatu dute. Dirua errez irabazteko lekua. Zatoz gugana!, zioten.

Estatu espainola jauja bihurtu zitzaigun eta espekuladore, narkotrafikante eta mota berbereko vipsak ia ia nahi dutena egiteko baldintzak ezarri zizkioten. Diru beltzaren paradisoa. Azken bolada hontan, Administrazioak erabiltzen dituen inkesten arabera, drogarekiko jendearen ardura beldurra itxuraldatu da. Administrazioak ezin dezake onartu publikoki narkotrafikoak, besteak beste, hainbat eta hainbat proiektu finantziatzeko iturria izan direla, "pagarés forales" edota beste emisio berezien bitartez. Dena den, onartu berria dugu diru horiek zuritzeko legislazioa.

Arazo bat gelditzen zaigu: drogen kontsumoa. Itxura, gutxienez, hobetzeko lege faxista bat egiten dute Madriden, ijitoak eta gizartearen azkenak errudun bihurtu nahian. Bitartean, narkotrafikoaren buruan lasai darraite. Beraiek ez dute inondik "merkantzia" ikutzen, bere lana dirua mugitzea (eta pilatzea) besterik ez da. Corcuera legea horiek babesteko eta narkotrafikoaren aurka burrukatzen dela adierazteko "itxuraz" eginga dago.

**Iñigo Urrutia**



## Kalean kartelik ez

Orain dela hilabete batzuk, oraindik aurreko Legealdian, kaleetan kartelik ez pegatzeko mozio bat onartu zen. Ondoren, hauteskundeak zirela eta, panel batzuk jarri zituzten kalean, alderdi politiko gutxiak erabili zituztenak.

Gaur egun, Udal-Batzar berria dugu eta Alkateak erakunde guztietara eskutitz bat bidali du, esanez, kartelak pegatzea edo pankartaren bat ipini nahi izanez gero, aurretik berari baimena eskatu behar zaiola.

Kaleak garbi mantentzen direnez, legea ez dago zeharo gaizki. Hala ere, intentzio txarrik ere badu, herri honetara datozen kanpotarrak ez dutelako inongo "mobida"rik somatuko.

Jakina da, publizitatea egiteko hainbat modu desberdin daudela, baina merkeetarikoa kartelak pegatzearena da eta askoz ere gehiago, norberak egindako kartelak badira. Bide hau aukeratzeko duten taldeek ez dute kaleak zikintzearen egiten, beste publizitate moeta batzuk erabiltzeko beste diru ez dutelako baizik.

Alkatearen baimen barik kartelak pegatzera irteak, karneta aldean eraman beharra suposatzen du, Udaltzaingokoek, Alkatearen aginduz, karneta eskatzen bait dute. Ondorioz, enfrentamendua dator noski. Gainera, guzti hori pasatu ondoren, hurrengo goize-rako ez dago kartelik.

Zein erizpide erabiltzen ditu Alkateak edo Gobernu Batzordeak, talde bati kartelak pegatzeko baimena eman edo ukatzeko?

**Agurtzane Loidi**

## ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA


## GANBARA

Berezitasunak:  
Pintxoak eta  
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T  
B  
E  
R  
N  
A

# A



**ARRASATE**

## ELKORO ANTENAK

✓ TB Satellite bidez

✓ Telebanaketa

Tfnoa: 79 18 86

## Zeuk galde



**41.** Euskal Herrian emakumeak zenbat urterekin izaten du lehenengo haurra, batzaz beste?

Euskal Estatistika Erkundearen 1.989ko datuen arabera, lehenengo haurra izan zuten ametan 28 urtekoak ziren gehiena (1.003 ama), eta 29koak ere oso hurbil: 955.

Urte horretan jaiotako lehenengo haurren %40a, amak 25 eta 29 urte bitartean zituela jaio ziren eta beste %32 bat, amak 30-34 urte zituela.

## □ Taldea osaturik

Beterano ekipo hau eratu berri den *Jubilatueta-ko Gobernu Batzordea* duzue. Anjel Herran presidente, Carlos Gutierrez presidente-orde, Joakin Balzategi idazkari, Jose Mari Uribetxebarria tesorero eta Felix Loidi, Julian Aginagalde, Pilar Larrañaga, Jose Agirre eta Vicente Madariaga bokalak direla, batzorde hau, batez ere, bazkideeen eskakizunak eta proposamenak Egoitzako teknikariei bideratzeaz arduratuko da.



## □ Aupa mutilak!

Argazkian agertzen direnez gain, oraindik beste 60 bergarar inguruk hartu zuten parte igandean korritutako *Behobia-Donostia* lasterketan. Antzuolar dexentek ere amaitu zuten 20 km.ko herri-lasterketa eta Xabier Azkaratek guztion arteko denborarik onena lortu zuen ordubete, 6 minutu eta 59 segundurekin, 20garren postuan sailkatuz. Bergararren artean berriz, Jon Aranzabal izan genuen lehena 69. postuan, ordubete eta 10 minuturekin. Ez dakiguna da irteeran erretratatu ezin izan genituenak abantailarekin ez ote ziren irten..

# EXUKLIN

## BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

# Aldoka Maldoka

## TABERNA



Kruz Gallastegi, BERGARA



Era guztietako  
kristaleria: Ispiluak,  
bidrierak...

# UR Kristaldegia

Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA



**❑ Bi proiektu**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak Juan Martin Elexpuru eta Iñaki Mozos idazle bergarrek aurkeztutako proiektuei laguntza ekonomikoa ematea erabaki du. Juan Martin Elexpuruk Italiako iparraldean zehar egindako bidaia kontatzeko asmoa du bere lehen bidai-liburua izango den honetan eta Iñaki Mozosek, bere aldetik, XVIII. mendeko Jean de Paris pastoralari buruzko ikerlana burutuko du. Lan horiek heldu bitartean bi idazle hauen jarraipena Berrigararen bitartez egiteko aukera daukazue...*


**Zertan dihardute ba?**

**ASIER LINAZISORO**



Sestaon irabazi ez arren, 26 urterekin *Euskadiko Squash Kankingeko* lehenengo postua lortu du, izan diren zazpi probetatik 3 irabazi, beste hirutan semifinaletara heldu eta bestean final laurdenetara heldu ondoren.

**ARANTXA ODRIUZOLA**



Udaletxeko *Gizarte Ongizate Teknikari* berria dugun 31 urteko hezitzaile espezializatua marjinetuen problematikaz arduratuko da. Orainarte aldi baterako kontratuekin ibili bada ere, orain fijo hartu dute.

**Tximak**  
Ileapaindegia  
Fraiskoziuri 3, Tfnoa: 76 56 69

**ARLA, E.L.**  
montaia elektrikoak  
• Argindarra  
• Elektrotresnak  
Ondarre Plaza 2, Tfnoa: 76 63 36  
ANTZUOLA

**GURIDI** Altzariak  
Era guztietako altzariak  
Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

## Txomin Amasorrainen Izkirimiriak

### Ongi etorria

Hemendik aurrera bolaratxo baten Txomin Amasorrain zana-  
ren *izkirimirixak* irakurtzeko aukeria izango dogu. *Zeruko Argian* 60ko hamarkadan publikatu izan zittuan, eta baita *Aguren* be. Berak eskribidutako moduan agertuko die, ortografiako ikutu txiki batzuekin. Zein modu hobiagorik hain estimatua izan zan Txomin gogora ekartzeko bere izkirimiriek barre egiñaz baino.

### J.M. Elexpuru.

Bazan Bergaran, ia aspalditxo, itzai edo karretero bat naiko xarra, ttiko bat, merroa baiña bai gogorra ere, "bai arranok ezpaituk". Afrontua izan, tximista, naiz eguzki galda-

tan, beti bere burdi-bolantaren aurrean pijo. Aurreko burtespatan (burdiko zuti-makillan) zintziliz eramaten zuen zaku-txano ta guardasol zaarren bat izaten zan urtearen barrenetik guenera bear izaten zuen bide-tresneri edo *ekipaje* guzia.

Bein, bere oiñetakoak zuloa emen eta zuloa an *mela-mela* eginda, zaparrada baten ondorengo basa ta lokatzetan *plisti-plasta* zijoalarik, bere ezagun baten, ezerrukitua gaixtoz, badi otsa:

- Aizu, urlia!... oiñetako orreiri ura sartuko jakue ba e?...

Eta gure itzaiak bere pipako ke-bolaratxo arin-biurri bat ezpain er-tzetik boteaz erantzuten dio irrisu...

- Sartu bai, baiña irten be bai...

## Antzinako kontuak

### Beste eraikuntzen izenak

Cromlech (bretaiaraz, *crom*, makurra, kurboa, eta *lech*, harria) hitzak zutik finkatutako harriek osatzen duten zirkulua adierazten du. Hauek, Bergara inguruan ezezagunak, maiz agertzen dira Gipuzkoako ekialde, Nafarroako ifarralde eta Iparraldeko mendi bizkarretan. Joxe Migel Barandiarani jarraituz, Oiartzun inguruan *mairubaratz* bezala ezagutzen dira. Zugarramurdi, *mairuilari*, eta ba omen dira beste zenbait "lokalismo". Deiturek adierazten dutenez *mairuen* baratzak edo hilarriak dira.

*Mairuak*, aspaldiko pertsonai mitologikoak, paganoak omen ziren. Garai batetan, kristaua ez zen gizakiari, hau da, bataiatzeke zegoenari, *mairu* deitzen zitzaion. *Mairu* izenez ere, moruak edo Allah jainkoaren

jarraitzaileak ezagutzen ditugu. Hauek sekulako indarra omen zuten, gai zirelarik, harri erraldoiak garraiatuz, gaztelu eta trikuharriak eraikitzeke. Ikusten denez, gure mitologian gauzak nahiko nahasirik azaltzen zaizkigu.

Ikerketa arkeologikoak argitasun pixkat ematen du. Zenbait cromlech-etan egin diren araketa eta ikerketen ondorioz zera dakigu: hildakoak errausteko, erretzeko lekuak zirela harrizko zirkulu horiek, eta Euskal Herriko kristautze prozesua hastear zegoenean, jadanik, cromlech guztiak eraikiak zeuzkatela gure artzain zaharrek. Ikerketa horien arabera, Kristo aurreko lehen milturtean zehar datatu daitezke ia cromlech gehienak.

Xabier Larrañaga

ileapaindegia  
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



# Bideluze eta Elizburu Euskadiko onenak

Igandean jokatu zen Gorlako aldapetan denboraldiko azken moto igoera

Angel Bideluze ber-gararrak irabazi zuen joan den igandean jokaturako IV. Gorlako moto igoera. 2-47-79-ko denbora behar izan zuen Bideluzek lasterketako 4 kilometroak egiteko. Alex Elizburu, 4 segundutara bigarrena izan zen eta hirugarrenak, Del Rey eibartarrak, alegia, sei segundu galdu zituen Bideluzerekiko.


Neurketan parte hartu zuen beste bergararra, Igor Agirrezal, bederatzigarren sailkatu zen. Angiozarkoa pozik zegoen, "normalean horrelako probetan parte hartzen ez dudala kontutan hartuz".

Gorla gainean lainoa zegoela eta ohizko dena baino beherago, Amesti baserriaren pareraino, igotzea erabaki zuten antolatzaileek.

Euskal Herri osotik etorritako 26 parte hartzaile aritu ziren lehian eta zaletu ugari bildu zen Gorlako maldetan, urteko azken proba ikustera.

## Euskadiko txapelkunak

Angelito Bideluzek, denboraldi ezin hobea



burutu ondoren Euskadiko Txapelkun gertatu da. Igandeko neurketarekin, urte osoan zehar jokatu diren 13 probetatik zortzi irabazi ditu eta denetatik onena dela argi eta garbi erakutsi du.

Motokroseko 500 zentimetro kubikotako Honda motorraren gainean Angelitok lau urte daromatza Euskal Herrian antolatzen diren txapelketan parte hartzen. Iaz bigarren geratu zen senior mailan, Jose Felix Elizbururen atzetik. Honen anaiak, bestalde, bigarren postua eskuratu du aurtan,

Euskadiko txapelketan eta litro t'erdiko motorrekin dabilzanen artean Euskadiko onena izan da.

## Bi anai

Bideluzerekin batera, Alex eta Jose Felix Elizburu anaiak aurreneko postuetan ibili dira moto igoeretan azken bi urteetan. Elizburu anaietatik, gazteenak, Jose Felixek, motorra saldu eta lasterketak alde batera uztea erabaki du aurtan.

Alex joan den urtean eta aurrekoan Euskadiko

txapelkuna izan zen junior mailan, eta Jose Felix, berriz, senior mailako onena izan zen iaz.

## Angiozarrera igoera

Aipatu, azkenik, Gorlako auto igoera Angiozarrera bidean jokaturako dela aurtan, Gorlarako kaminoa egoera kaxkarean aurkitzen delako. Angiozarrera igoko den arren, probak ez du izenez aldatuko eta bi aste barru, alegia, abenduaren leian, igande goizean, jokaturako da.

# BERGARA PIEL

Egun-eguneko moda  
preziorik onenean

Espaloia 6,

Tfnoa: 76 20 70

BERGARA

# GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34



*"Ernai" antzerki taldea*

**A**spalditik izan du Bergarak antzerkirako zaletasuna. 1.764ean antzestu zen hemen *Peñafloridako kontearen "El Borracho Burlado"* opera barregarria. Mende honen hasieran ere, 1.905 aldera, *Toribio Alzaga* eta *Zapirainen "Txanton Piperrri"* eman zen. Geroago, Errepublikara garaian, Batzokian sortutako antzetzaldea izango zen aipagarriena. Eta azkenik, goiko erretratuan agertzen diren hauek *"Ernai"* taldea sortu zuten, 1.966an.

*Txomin Amasorrain* eta *Juste Amenabarren* zuzendaritzapean jardun zuten eta Txominek euskaratutako hainbat obra eman zituzten. Goiko erretratu, beren lehenengo antzezlanekoa da. *Novedades Aretoan* eman zuten hori eta, harrez gero, hainbat herritan zehar ibili ziren.

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Juste Amenabar, Marisabel Arregi, Gotzon Bikuña, Arantza Ibarzabal, Itziar Amenabar, Iñaki Arriaran, Txomin Amasorrain eta Xabier Zezeaga.

**Jarrita:** Juan Luis Bikuña, Marikontxi Aranguren, Angelita Agirrebeña eta Mikel Lazpiur.

*Estepan Plazaola.*  
Argazkia: *Serafin Esnaola.*

**ZAPATODOS**

Etxeko zapatilak 950 pzta (bi pare)

San Pedro

BERGARA



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** daukat eta **konpartitzeko** lagunen bila nabil. Deitu: 762457 (eguerdian).

**Pisua salgai** Koldo E-leizalden. Tfnoa: 765823.

**Pisu txiki** edo **buhardila** bat hartuko nuke a-lokairuan. 763270.

**Baserri** bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.

**Pisu** edo **buhardila** hartuko genuke alokairuan. 764735.

**Pisua salgai**: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. Tfnoa: 764971.

**Pisua salgai**, garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.

**Gaztelania hobetu** nahi dut. Pisu bat hartuko nuke errentan beste ikasle batzuekin, edo familiaren batean biziko nintzateke. Deitu: 763001 telefono-ra (John).

**LANA**

Arratsaldez lana egingo nuke **etxeko lanak** egiten edo **umeak zaintzen**. Deitu: 765482.

Produzio saileko **Injenerio-tekniko** batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913

**Langile** bat behar da. Tfnoa: 761593, lan ordu-etan.

Mutil batek furgoneta batekin **errekauak** egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.

**SALDU-EROSI**

**Olozko radladoreak** salgai. Bost neurri normalekoak eta bat bikoitza. Deitu: 764988, gauzez.

**AMSTRAD CPC 6128** ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 40 joku eta 3 Joystick. 50.000 pza. Deitu: 761528.

**Karrerako bizikleta** bat **mendiko bizikleta** batengatik trukatu nuke. Deitu: 763269.

**Skate-ko patinete** berri-berria salgai. Tabla *Hard-Times*, ejeak *Gold-Wine* eta erruberak *Mini-Rat*. Deitu: 762682.

3 pertsonarentzako **Iglu kanping-denda** berria salgai. Deitu: 763495.

**Logela bat eta altzariak** salgai oso merke. Deitu: 761929.

200 litrotako **Fagor termo elektrikoa** salgai. Deitu: 764988 gauzez.

**Siberian-husky's** arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 761479.

**Amstrad ordenadorea** salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 762512.

**Karabana berri-berria** salgai 5 pertsonarentzako abanxe eta guzti. Deitu: 761388.

**YAMAHA PSR3 organoa** salgai. 24 erritmo eta 100 ahots. Hanka eta transformadore eta guzti. Berri-berria: 60.000 pza. Deitu: 765231, gauzez.

**Hildakoak**

*Jose Maria Sañudo Lasagabaster*  
azaroaren 12an, 77 urte

**Jaiotakoak**

*Aste honetan ez da inor jaio Bergaran.*

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**TABERNA**




Irala 3, Tfnoa: 76 20 50 BERGARA

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**FAGOR** 

Sukalderako altzariak



**6** URTEKO  
GARANTIA

## EMAKUMEA, OSASUNA ETA SEXUALITATEA HIRUGARREN ADINEAN

**AZAROAK 18  
ASTELEHENA**

**Hitzaldia:**  
"SEXUALITATEA 3.  
ADINEAN"  
**Hizlaria:**  
PILAR OTEGI  
**Ordua:**  
18.30etan  
**Lekua:**  
Jubilatuen etxea

**AZAROAK 19  
ASTEAZKENA**

**Hitzaldia:**  
"TITIKO MINBIZIAREN  
PREBENTZIOA"  
**Hizlaria:**  
M. JESUS MITXELENA  
**Ordua:**  
18.00etan  
**Lekua:**  
Jubilatuen etxea

**AZAROAK 22  
OSTIRALA**

**Hitzaldia:**  
"MENOPAUSIA ETA  
GINEKOLOGI-MINBIZIA"  
**Hizlaria:**  
LOURDES ARITXITURRI  
**Ordua:**  
18.00etan  
**Lekua:**  
Jubilatuen etxea

**Antolatzaileak:** Emakumearen Udal Zerbitzua  
Jubilatuen Etxea

**Laguntzaileak:** EMAKUNDE  
Emakume Mazektomizatuen Elkarte